



UROLA KIDEtuz proiektua Urola bailarako hiru garapen agentzien artean landutako proiektua da, Uggasa, Iraurgi Berritzen eta Urola Kostako Udal Elkartearen artean, hain zuzen. Bailara osoan pisu nabarmena duen egur eta altzarien sektoreko enpresen arteko lankidetzaren bultzatzea eta merkatu dibertsifikaziorako aukera berriak sustatzea izan da amaitu berri den proiektuaren helburua.

Urola bailarako tradizio handia du egurraren eta altzarien sektorean eta produktu-eskaintza heterogeneoa du, enpresaren bat dugulako balio katearen jardura ia guztietan, nahiz eta balio kate bakoitzaren pisua askotarikoa izan.

Tradizioz, eraikuntzari oso loturik egon den sektorea izan da eta bestelako faktoreen aldaketaren eragina jasan du, besteak beste, familien kontsumo ohituren aldaketaren eragina.

Sektore honek gure bailaran berregituraketa prozesu sakon bat igaro du, eta bide hori Europako beste hainbat lurraldetan baino beranduago egin badu ere, funtsean antzeko berregituratzea izan du. Zailtasunak zailtasun, gaur egun, egurrak lehengai moduan balio handiagoa hartzearen ondorioz eta ingurumenaren jasangarritasunaren ikuspegitik, aukera eta bide berriak ditugu etorkizunerako.

Gogoeta horiek daude Urolako hiru garapen agentziek eginiko apustuaren jatorrian UROLA KIDEtuz proiektua sustatzerakoan, izan ere, apustua izan da sektoreko enpresak sendotzen laguntzea eta produktu eta merkatu berriak bilatzea, enpresa horien jardura dibertsifikatzeko eta lehiakorragoak izateko.

UROLA KIDEtuz proiektuak hiru urteko iraupena izan du (2013-2015) eta garatu dugu "Enplegu estrategikoak" PO FSE 2007-2013 arautzen duen programaren barruan. Ikuskera eta filosofia aldetik, jatorritik bertatik proiektu irekia izan da eta garatu dugu sektorearekin eta sektorearekin harreman zuzena duten beste eragileekin elkarlanean, eragile publiko nahiz pribatuekin.

Proiektuaren azkeneko urte honetan, eskualdeko 10 enprekin merkatu berriak bilatzeko eta jarduera dibertsifikatzeko planak garatu dituzte agentziek eta aldi berean, egurraren osagarri izan daitezkeen materialen inguruko azterlana egin da. Proiektuari bukaera emateko, abenduan jardunaldia egin zen.

Programari amaiera emateko, parte hartu duten enpresen katalogoa egin dugu, gure bailarako sektore horretako enpresak ezagutzera emateko.

ERAKUNDE ANTOLATZAILEAK

- Iraurgi Berritzen
- UGGASA
- Urola Kostako Udal Elkarte

ENPRESA PARTE HARTZAILEAK

- Arrona Hermanos SL (Induo)
- Ongi Mecanizados en Madera SL
- Muebles Uria Bi Gipuzkoa SL
- Lita-Kit SLU (Muebles Lotegi)
- Manipulación Mendizabal SL
- Modelos Ezguba SA
- Escaleras Interiores de Madera SL (Eima)
- Barnizados Lixatu SL
- ISEQ Azpeitia SLL
- Arimar SL

Proiektu honen katalogoa ikusgai [hemen](#).